


 ARGIA.EUS/LARRUN

FILIFE, JOJO ETA BETTI

BIDART ANAIAK

ATZOKO BEGIRADAK, GAURKO KEZKAK



LARRUN #286

ETXE BATEN ISTORIOA, HERRI BATEN KONTZIENTZIA HARTZEA

EGILEA | **MIEL. A. ELUSTONDO**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Emile Larre zenak Baigorri jarri bertsoetatik dira, Erramun Martikorenak kantatuak: “Baigorriko herriak hegalak urrun tu / Denak ere malkarra, erroitz eta bortu / Bainan, zer inporta du, ni han nintzan sortu / Eta hantxet nahi dut engoitik zahartu... Germieta Belexik ikusirik Larla / Diote: ‘guk Oilandoi dugu gure perla’ / Arrano begiz dago denen zain Iparla / Hunen gerizan dituk borda ta etxola...”. Eta, justuki, Oilandoi mendi

ederra aurrean dugula da Betti Bidarten (Baigorri, 1954) etxea, solasean bildu garen tokia.

Bettirekin batera dira Filipe (Baigorri, 1953) eta Jojo (Baigorri, 1956). Gazterik hil zen, gaxorik, gazteena, Babi. Eta, Jojo izan ezik –“zintzoena, edo abilena!”, inoiz Filipek esan izan duenez-, preso egon ziren gainerakoak, bai aldi berean ere. Hargatik esan bide zion epaileak behin Filiperi: “Uste dut zuen aita arrastatu behar dugula!”.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.830 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **EGILE ESKUBIDEAK:** CC BY-SA

HELBIDEA: ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45 **POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS

INPRIMATEGIA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2023ko ekainaren 25a

Bidartarren aita, Jean Batiste, *Kuxkurrio*, semeek egin bidearen lehen harria ezarri zuena, ARGIA honetan bertan 1991n Mikel Asurmendi kazetariak elkarrizketatua: “[Jean Batiste Bidart] Ogibidez zurgina izan zen, 14 urterekin aitaren aprendiz hasi eta erretreta hartu arte. 16 urterekin hasi zen euskal dantzak ikasten eta 1966an berriz ere Baigorriko Arrola dantza taldea elkartu zuen. Urte luzetan, kanpoko dantza irakasleak Baigorriara joanarazi zituen eta herriko gazteak Hego Euskal Herrira eraman zituen, dantzak ikasi eta emanaldietan aritzeko. Hamar bat urtez sustatu zuen

Arriola dantza taldearen bizia eta garai hartan Euskal Dantzarien Biltzarreko bileretan parte hartu zuen. Egun bere ondorengoek dantza talde herrikoiairen segidari eusten diote”. Eta, horiek osatzera, berriz, haizeak ekarriak diren ondokoak: “Bidartarren aita, itzal handiko pertsona Baigorriin. Euskaltzale handia, giristinoa, irrintzilari gaitza, kantari ezaguna, Baigorriko dantza taldearen sortzailea, goizik alargundua, lau semearen aita. Memento batez, horietarik hiru preso zituen. Gizon gogorra, sekula pleini ez zena. Armekin ados ez egonik ere, beti semeen alde agertu zen publikoki.

Iparaldeko preso senideen Ahai-deak elkarteko lehendakari. 20 urtez Frantziako azken muturreraino joan ohi zen, astero, bera bakarrik, Filipe bisitatzera. Frantses telebistan ere agertu ziren bere ibilaldiak”.

Hitz horietan okerrik ez dela ohartu gara Filipe, Betti eta Jojo Bidartekin mintzatzen hasi ordukoxe: dantza, musika, euskara... Gaztetarik, kulturatik politikara egin zuten bidearen isla da, Iparretarrak-en borroka armatua parentesi eta lerro artean ezarririk.

Zeren kulturatik politikarat urrats ttipia baita, Filipe Bidartek esango digunez...



Ezkerretik eskuinera, Jojo, Betti eta Filipe.

■ **Zuetarik bakoitzak bere bidea egin du, partekatu dituzue zenbait bizipen eta esperientzia, baina ez denak, nonbait. Hala ere, hirurek elkarbanatzen duzue herriarekiko engaiamendua, era batekoa zein bestekoa. Nondik heldu da engaiatze edo konpromiso hori?**

JOJO: Ttipitik. Nik, hasteko, Arrola dantza taldean bizi izan nuen lehen esku-sartzea, edo zango-sartzea, kulturaren. Aitarekin euskaraz mintzatzea, eta aitaren eskutik Arrola dantza taldean sartzea izan ziren lehenik. Eta, horiekin, etxean anaia txistu jotzen entzutea, hastapenean etxean entzun baike nuen. Horiek izan dira lehen urratsak.

FILIFE: Aitak zuen Arrola taldea zuzentzen, berak piztu zuen berriz, eta guk horretan segitu genuen eta hasi ginen dantzan ttipi-ttipitik. Etxean euskaraz ari ginen, eta aitaren bidez ukan dugu, eta heldu zaigu, euskara eta euskal kulturari buruzko atxikimendua. Dantza, musika, txistua, herriko kantari taldea... Baigorriin, Elizan kantuz ari zena zen kantari taldea, baina etxe-sartzeetan [ezkonberriak beren etxean sartzeko erritua] eta Baigorriko bestetan ere ari zen. Pello Erramuzpek zuzentzen zuen kantari talde hori.

“

“AITAREN BIDEZ UKAN DUGU, ETA HELDU ZAIGU, EUSKARA ETA EUSKAL KULTURARI BURUZKO ATXIKIMENDUA”

JOJO BIDART

BETTI: Eta nik ere berdin, ene anaiek erran duten iturri horretarik dastatu nuen. Gazte-gaztetarik, haurra nintzelarik, sei-zazpi urtetan, biziki maite nuen musika. Eta txistua entzun nuelarik, nahi izan nuen hari segidan lotu, eta hasi nintzen, eta, gero, dantzari taldean segitu nuen. Bestalde, musika ikas-teko xantza ukan nuen aitaren lagun batekin. Heldu ohi zen astean behin Baigorriara, eta etxean erakutsi zidan musika, bazkariaren truk. Hemengo dantzari talde frankotan ibili nintzen –garaztarretan-eta-, eta kontserbatorioan ere ikasi nuen. Horrela, beste zenbait taldeekin dantzan ateratzeko xantza ukan nuen. Nik ere Arrola taldearen lehen urratsetan parte hartu nuen, eta horrela abiatu nituen lehenbiziko harremanak Hegoaldearekin; lehenbizi, Nafarroan, eta gero Euskal Herri guzian. Ainitz ibili ginen, eta ainitz jende ezagutu genuen. 1970eko hastapenean zen. Dena loturik zen orduan: kultura, politika eta herriko bizia.

■ **Non da amaren irudia? Aitaren euskaltzaletasuna, dantza, txistua... eta ama Kati?**

JOJO: Aita da euskararen atxikimendua pasarazi duena. Ama da afektibitatea. Oso harreman hurbila genuen, pertsonala, ez hainbeste euskal kulturari lotua. Edo bai. Ezin dut Baigorriko bestarik pentsatu, amaren bazkariak gabe. Horrek toki handia du guretzat, baina ere gure etxetik pasatu diren jende ainitzentzat. Jendeekin harremanak egitean, haiei etxera ongietorria egitean-eta, amak parte handia ukan du.

BETTI: Etsenplu bat emateko, herriko bestetan beti egiten genuen bazkaria. Familia eta lagunak, 30 edo 40 bat pertsona biltzen ginen. Behin, oroitzen naiz, banuen Uztaritzeko lagun bat, txistularia. Asteartea arratsaldea zen, ez



igandea baitezpada! Lagun hark erran zidan: “Badakik zenbat jende pasatu den hire etxetik arratsaldean?”. Eta nik: “Ezta ideiarik ere!”. Eta berak: “Erran nahi baita, zuen etxetik pasatu, eta zerbait hartu, izan kafea, deserta edo ogia eta gasna... laurogeita bost! Kontatu ditiat denak!”. Harriturik gelditu zen! Gero, herrian ibili ginen txistua jotzen eta besta girotzen, eta musika jotzen izan ginen ostatuan gau guzian. Besta finitzean pasakalle bat egin genuen plazatik gure etxera, eta hara arribatu, eta aita jaiki eta hasi zen guri arrautza-omeleta egiten. Eta nire lagun hark, harrirua berririo: “To, gure etxean ez duk halakorik egiten!”. Gure etxean bazen irekidura hori. Eta musikan eta kantuz eta dantzan ari zirendako bortak zabalik ziren beti.



■ **Zuen amak dantzariendako jantziak josten zituela ere entzun dizut zuri [Filipe] erraiten...**

FILIFE: Bai, horretan sekulako lana egin izan zuen, beste zenbaitekin

“

“BETTI, BADA KIK ZENBAT JENDE PASATU DEN HIRE ETXETIK ARRATSALDEAN? PASATU, ETA ZERBAIT HARTU, IZAN KAFAA, DESERTA EDO OGIA ETA GASNA... LAUROGEITA BOST! KONTATU DITIAT DENAK!”

BETTI BIDART

batera. Ene oroitzapenetan zinez urrats berezia izan zen 70eko hamarkadaren hastapenean muntatu genituen kabalkadak. Aita arduratu zen horretaz, eta jantziak josi zituzten gure amak-eta, eta ni ibili nintzen jantziak etxe guzietan banatzen, zeren garai hartan kabalkadan etxe guziek parte hartzen baitzuten, etxe bakoitzetik bazen norbait kabalkadan parte hartzen zuena, eta molde batean beztitzen zen: galtza xuriak, zinta gorria, bolantak... Zinez herri guziak parte hartu zuen kabalkadan. Tobera gisan muntatuak izan ziren –kabalkada eta toberak, biak lotuak baitira–, eta herrikoak oroitzen ziren aitzinako kabalkadaz, hura izan baitzen Bigarren Gerlaren biharamunean, 1946an! Oroitzen ziren ere etxe bakoitzetik kabalkada hartan nork parte hartu zuen,

eta berriz nahi zuten denek parte hartu. Belaunaldi guzietako jendeak bildu ziren, gazte eta adineko, eta horrek eman dit eni lekuko ohitura, dantza, mutxiko eta horiei atxikimendua. Han senditzen zen, zinez, herriaren bihotza, eta komunitatea. Hortik, gero, ni sartu naiz politikaren munduan, zeren kulturatik politikarat urrats ttipia da. Kulturaren bidez, hizkuntzaren bidez, herritarrekin genituen harremanen bidez, kontzientzia hartze bat izan da ene barnean.

■ **Kabalkada batek halako mirakulurik obra lezakeenik ere!**

FILIFE: Hala izan da. Lehenbizi, kabalkada izan da, eta gero sortu ditugu toberak, baina arrunt beste gisa batekoak, arrunt politikoak, gizarte arazoei lotuak. Tobera berriak egin genituen, eta hortik ere sekulako urratsak heldu dira, kultura eta politika, biak lotuz. Hala ere, nola toberak berriak genituen, jendeak ez zuten berdin ontsa hartu. Batzuek, sobera berriak zirela, gaia ere politikoa zela... Izan ziren gorabeherak eta kalapitak! Orduan, herritarrek berriak lotzeko eta berriz adiskidetzeko, beste tobera batzuk muntatu genituen handik bi edo hiru urteren buruan, baina orduko hartan arrunt tobera tradizionalak izan ziren. Joko horretan sartu ginen –nahiz joko bano gehiago zen–, herritarrekin berriz lotzeko eta herritarrek berriz parte hartzeko, eta lortu genuen, tobera klasikoaren bidez.

■ **Gisa berean, aski gorabehera izan zen Baigorri, Nafarroaren Egunaren sortzearekin. Jendeak ez zuten onartu...**

BETTI: 1979an izan zen lehenbiziko Nafarroaren Eguna. Eguna hura piztu zen ordukotz genituen harremanen inguruan. Bereziki Nafarroan ibiliak ginen, dantzan-eta,

eta eguna asmatu genuen errateko Baigorri, eta Nafarroa Beherea, Nafarroako zati bat zela. Kultur ekintza bat zen, baina bazen mezu orokor bat ere, bai euskararen inguruan, bai Nafarroa batzearen aldekoa. Bistan da, mezu hori hemengo politikariek ez zuten begi onez ikusten, gauza berria zen Nafarroa bat dela erratea, batu nahi izatea. “Kasu eman, norbait dira gazte horiek...”. Bazan mugimendua hemen orduan, eta Iparralde osoan ere! Lehenbiziko kultur taldeak-eta muntatu zirelarik, 1977 edo 1978an, herrika antolatu ziren gazteak Iparralde osoan, mugimendu aski azkarra izan zen: Herri Taldeak [1975-1980 bitartean Ipar Euskal Herriko herrietan eratutako taldeak].

Oroitzen naiz, mitin bat egin izan zen 1977an, [Baigorriko] trinketean, salatuz hemengo egoera zein zen eta ere proposamenak eginez lanaren inguruan, laborantzian-eta, baina kulturako eta sozial mailako errebindikazioak eginez. Denak herritarrak ginen. Mitin hori hemengo gazteen artean prestatu genuen, hausnarke-ta baten inguruan. Eta mugimendua segitu zen, eta erabaki zen behar zela kultura aste bat antolatu, garai hartan hasiak baitziren kultura asteak egiten Zuberoan, Hendaian, Hazparnen, Donibane Garazin... Hemen, lehenbiziko kultura astean, pentsatu genuen Nafarroaren Eguna egitea. Harremanak bagenituen –dantzaren bidez eginak-, Erriberan, Iruñean, Lizarran... eta hango dantzari taldeak ekarraraziz, lehenbiziko Nafarroaren Eguna antolatu zen. Erantzuna biziki azkarra izan zen.

JOJO: Hori zen Herri Taldeen izpiritua, eta izpiritua baino gehiago, egin moldea: herritarrak bildu, gazteak bildu, eta egoeraz ohartu. Gehienbat hori zen abiapuntua. Gero elkarrekin ikusi zer egin.



Baina, orduan, herritarrek berek zuten hitza hartzen.

■ Egoeraz ohartu, erran duzu, Jojo. Zein zen egoera, zuen ustez?

JOJO: Herria hiltzen ari zela, hori zen gure sentimendua. Baina sentimendua baino gehiago zen. Konkretuki, estudio bat egin genuen, eta parte hartu nuen beste gazte batzuekin batera; oroitzen naiz biziki Peio Iralurerekin, gurekin baitzen. Herriz herri bildu genituen datuak. Ez zen denbora hartan datuak biltzeko Internetik, eta Baigorriko kantonamenduko herri guzietan ibili ginen, eta ohartu ginen, datuak bilduta, Baigorriko kantonamendua, eta Atharratzekoa, hiltzorian zirela. Demografikoki jende galtze izugarria zen, eta prospektiban, ohartu ginen hiltzeko puntuan ginela, itotzen ari ginela. Eta hori ezin jasana zen.

Euskara bizi zen oraino garai hartan, baina ikusten genuen nolako arazoak heltzen ahal ziren. Eta ekonomikoki, gazteak hemendik joaten baitziren, bizitzeko behar zen zerbaite egin! Baziren mugimenduak, hala ere. Bazan proiektu

bat abiarazia, Arrosan kooperatiba bat muntatzeko, eta estatuak debekatu zuen! Oldartzeak baziren sail ezberdinetan: ekonomia, kultura, sozial maila... eta gazteak biltzen ziren erregulariki. Oroitzapen biziki baikorra eta azkarra dut garai horretakoa: nik hamazazpi-hemezortzi urte, bilkura haietan parte hartzen. Eta ohartu ginen zepo horretarik ateratzeko, guk egin behar genuela.

BETTI: Edozein gisaz, ordu arte jaunttoen eskuetan zen herria, ez zen orain bezala. Oraino baziren jauntto batzuk –Intxauspe, Duboscq, Grenet...–, jendeengan ikaragarriko indarra eta boterea zutenak. Dena beren meneko atxikitzen zuten, bai prentsa, bai dirua... Jende guziak haiengana joaten ziren zerbaite ateratzeko. Jainko ttipiak ziren hemen, ezin hunkiak jendeen izpirituetan. Eta gu kontra abiatu ginelarik, “Politikariek ez, politikariek ez!”, erraten zuten. Politika zen gauza zikina, ez zen hunki behar! Jendeendako hori ikaragarrikeria zen: “Kultura... ontsa da, baina ez egin politikariek!”.

“

**“POLITIKA ZEN
GAUZA ZIKINA, EZ ZEN
HUNKI BEHAR! ‘KULTURA...
ONTSA DA, BAINA EZ
EGIN POLITIKARIKI!’
ERRAITEN ZUTEN DENEK”**

BETTI BIDART

FILIFE: Herri Taldeak aipatu baitira, gure herriko mitin horretan kantonamenduko, eskualdeko, ibarreko gazteria gehiena bildu zen. Petizio-ne bat izenpetua izan zen. Egoera salatzen zen eta eskakizunak osatzen zituen, hemengo ibarretik beretik. 250 gaztek izenpetu zuten petizione hura, erakusteko bazela kontzientzia hartze bat eta ari zela

mugimendu bat sortzen. Badakit prefeturan pixka bat harritu zirela, eta alarma bota zutela: “Kasu, hemen zerbait ari da muntatzen, behar da kasu egin eskakizun hauei!”. Ez zuten batere kasu egin baina!

■ **Kultura bai, politikarik ez. Zuen etxean ere, kultura zen lehenik, aitaren hizkuntza, dantza, musika... Bazen kontzientzia politikorik, abertzaletasun politikorik?**

FILIFE: Aita euskalduna zen errotik, euskaldun sentitzen zen, baina ez zuen kontzientzia politikorik. Politika engaiamendurik ez zuen. Bettik erran duen bezala, aitak ere pentsamendu hori zuen, ez zela politika egin behar: “Politika gauza zikina da, ez da horretan sartu behar. Polemika bada, kalapitak sortzen dira, eta ez da on kalapiten piztea edo harrotzea”, erraten zuen. Xalbadorrek ere kantatzen du hori bere bertsoetan. Garai hartan, hemen abertzale bezala agertzen zirenak Enbatakoak ziren, eta Enbatako gehienek ez zekiten euskararik ere. Hor bazen haustura bat.

Guk, euskaldun eta euskaltzale kontzientzia hartu eta naturalki egin genuen kontzientzia politiko hartzeko urratsa, eta politikoki engaiatu ginen. Berehala sentitu genuen behar hori, zeren eta euskaldun bezala agertzea eta urrats politikorik ez egitea ez zen aski, zeren eta erabaki eta neurri politiko batzuk hartu behar ziren, eta hori politika bidetik baizik ez zen posible. Behar zen gizartea harrotu eta jauntto horiek beren jarraulki haietarik kendu. Gure belaunaldiko gazteen lehen urratsa izan zen, justuki, bilkura politiko publikoetan parte hartzea, galderak pausatzea eta oharrak egitea.

BETTI: Gauza biziki inportantea izan zen 1981ean-edo, egiten zizutzen *contrat de pays* [lurralde kontratua] deitzen zirenak. Horien bidez, Frantziako Estatutik dirulaguntza batzuk heltzen ziren herrietara, proiektu berri batzuen eramateko. Hori jaunttoen eskuetan zen, haiek banatzen zuten dirua. Usaian, erraten zuten: “Komisio batzuk eginen dira, lagunduko dugu hau eta hura...”. Baina, urte batean, gazteak antolatu ginen eta sartu ginen komisio guzietan.

“

**“URRATS POLITIKORIK
EZ EGITEA EZ ZEN ASKI,
ZEREN ETA ERABAKI ETA
NEURRI POLITIKO BATZUK
HARTU BEHAR ZIREN,
ETA HORI POLITIKA
BIDETIK BAIZIK EZ
ZEN POSIBLE”**

FILIFE BIDART



Miel Anjel Elustondo kazetaria Bidart anaiekin elkarrizketan.

Oroitzen naiz, ni gazte-gaztea, hogeituz urte-edo, ofizialen bilkura batera joan nintzen. 70 bat ofiziale-edo han, eta Guermite zen kontseilari nagusia, eta baziren diputatuak. Bazen alimaleko boterea han. Hasten da Guermite kontratua esplikatzeko, erranez han berean behar zela erabaki zer egin. Han nintzen ni, haien artean, mukizua. Eta hitza hartu eta: “Barkatu, baina komisionek egin beharko dira, bai, eta bilkurak, eta pisatu eta aztertu zeri buruz joan nahi dugun...”. Eta berak: “Ez, ez, hemen berean eginen diagu!”. Eta jendeak eni so. Eta nik: “Baina normalean kontratuak ez dira horrela pasatzen, behar dituzu etapa batzuk bete”. “Zer dakik hik, mukizua?!”, hasi zitzaidan denen aitzinean. Eta nik: “Baditut hemen testuak...”, “Nondik dituk hik testu horiek?”. “Publikoak dira, prefeturatik heldu dira... Testu ofizialak dira...”. Iskanbila hasi

zen jendeen artean, zer egin, zer ez egin, gizonak handik zer eta nola atera ez zekien, eta erabaki zen komisione bat muntatuko zela, nor joanen zen komisionera, eta gero denen artean eginen zela beste bilkura handi bat. Alimaleko eskandalua hasi zen, eta berdin pasatu zen herri guzietan. Dinamika bat sortu zen lurralde kontratu haien inguruan, eta biltzar nagusia izan zelarik Donibane Garaziko herriko etxean, guk gure proposizioak aurkeztu genituen.

■ **Garai bateko herri bilkuretan beti zen argi egiten zuenen bat, gidariren bat, oroz lehen hitza hartzen zuena...**

BETTI: Baziren jende batzuk, Mixel Bergouignan eta beste franko, kontzientzia politikoa eta formakuntza zutenak. Nik deus ez, etxetik heldu eta hola! Horretan hasi pixka bat lanean, hor ikasi, eta on-

dotik aitzinatu, hori izan zen ene kasuan. Bazen mugimendua han eta hemen, baina guk lehenbiziko urrats politikoa herrian egin dugu, Baigorriko Herri Taldearekin eta Herri Taldearen barnean

FILIFE: Herri Taldeen printzipioa hori zen. Hastapenean lekuko taldeak ziren, lekuan lekuko militanteak; gehienetan, gazteak. Biltzen ginen, eta mintzatzen egoeraz. Jajok erran duen bezala herria ari zen hiltzen, eta guk zerbait egin behar genuen, baina zer egin, nondik hasi, zer galdegin, zer eraiki... ez genekien. Gure egin molde hori heldu zen, beharbada, aitzineko urteetan Frantzian, 68ko Maiatzean-eta, izan zen mugimenduaren guziaren inguruan. Kontestazio eta militantismo izpiritu horrek eragina izan zuen hemen 70eko hamarkada hastapen hartan. Bestenaz, ez da nehor honat jin zer egin behar genuen erratera. Holakorik ez da izan.

■ **Eliza nagusi zen garai hartan, eta, Elizarekin, haren sinesteak, zintzo izan eta obeditu beharra.**

JOJO: Bazen hori gure artean hemen, baina, horrekin batera ohartu behar gara Elizan berean izan zela talka, eta Iparraldean ere ezagutu dugu hori. Eta badakit zer ari naizen, Filipe eta biok pasatu baikara eliz eskoletarik, eta apez eskoletarik. Ni, hasteko, 17 urtetan atera nintzen handik, eta jadanik adin horretan da kontzientzia hartzen, eta ene baitan orduan bi mugimendu baziren: euskal mugimendua eta engaiamendua. Horretan, nik etapa biziki inportantea bizi izan dut lizeoan, Mende Berri izeneko mugimenduaren barnean, hor hasi baikinen gogoetatzen eta ulertzen jadanik etxean eta herrian –dantzaren eta

musikaren bidez, eta etxeko euskara giroaren bidez–, bizi genuenari buruz kontzientzia hartzen. Ez da, beraz, etxe baten istorioa bakarrik, da herri baten kontzientzia hartzea.

■ **Zuk, hala ere, lizeoan jaso zenuen kontzientzia hori.**

JOJO: Bai. Hor lehen aldikoz entzun nuen Euskal Herriko historia. Lizeoan bagenituen historia kurtsoak baina sekula santan ez zen Euskal Herrikoa aipatzen. Lizeoan, Mende Berri mugimenduaren barnean, bai. Han jakin nuen historiari buruz, eta euskarari buruz. Denbora berean, baziren errefuxiatuen inguruko mugimenduak, eta denbora berean joaten ginen Arrola dantza taldearekin Hegoalderat eta sekulako errepre-sioa bazen ikurrinaren inguruan.

■ **Lizeoaz landa, besterik izan zen, inoiz kontaktu duzunez, Jojo...**

JOJO: Eliza aipatu baituzu, erran behar da Elizan berean bazirela mugimendu ezberdinak. “Gauza onartu behar da... Gainean direnek erraten dutena onartu behar da... Burua apaldu, sufritu...”, hori guzia erraten zuen Elizak, baina Elizan ere bazen Askapen Teologiarekin bat eginak. Horrek bazuen beste balore bat: bizi balorea, askatasuna! Balio pertsonala, baina baita kolektiboa eta soziala ere. Hamazazpi urtetan, nik ez nuen onartu nahi Elizak ordu artean ezarri zizkigun baloreak, eta, denbora berean, Herri Taldeak baziren, eta haietan sartu ginen. Balio handiko esperientzia bat, enetako, denbora hartan. Aintzetan pentsatzen dut,



zendako ez dugun Herri Taldeen esperientzia hura segitzen oraino. Orduko mugimendu guzia horretarik da: “Eskuetan har dezagun gure egoera... Euskara ez dute bestek salbatuko, guk salbatuko dugu”.

■ **Errefuxiatuen mugimendua aipatu du Jojok. Hegoaldetik heldu lehen iheslariak, alegia, ETaren militante historikoak.**

FILIFE: Errefuxiatuek ez dute lotura zuzenik Herri Taldeekin, hauek sortu baitira hemengo egoerari loturik, belaunaldi berriekin, kontzientzia hartzen ari diren militanteekin. Iheslarien sostengua eta elkartasuna naturalki bizi genuen, hari berezik bizitzen zen. Denok parte hartzen genuen –erran nahi baita, ahal zutenek, edo okasionea zutenek–, sostengu horretan. Ikuspegi orokorrean sartzen zen hori: nola Euskal Herriaren kontzientzia bagenuen, horiek euskal militanteak ziren, Hegoaldetik heldu. Gainera, frankismo garaia zen, faxismoaren eta frankismoaren kontrako borroka horretan ehuneko ehunez ados ginen, borroka sostengatzeko prest ginen, eta sostengatzen genituen iheslariak. Iheslarien aldeko eta Hegoaldeari buruzko elkartasun hori gure pentsamoldean sartzen zen, eta gure egitate eta engaiamenduan.

■ **Zuen kasuan, Baigorriin, mugamugan zaudete...**

FILIFE: Eta mugatik hurbil izanez, badugu harremana bertze aldearekin, aiseago, eta ikusten dugu Euskal Herria ez dela bakarrik mugan gelditzen, eta mugan bestaldean ere euskaldunak direla, euskara bera dugula. Iheslarien sostengu hori naturalki heldu da. Hori ere gure militante bidean barne da, horrek ere izan du eragina gure kontzientzia hartzean, baina ez da izan hemengo mugimenduaren sustatzaile, edo mugimendua piztea ekarri duena. Iheslariak honat jin direlarik, eta

“

“FAXISMOAREN ETA FRANKISMOAREN KONTRAKO BORROKA HORRETAN EHUNeko EHUNEZ ADOS GINEN, BORROKA SOSTENGATZEKO PREST GINEN, ETA SOSTENGATZEN GENITUEN IHESLARIAK”

FILIFE BIDART

gero eta gehiago jin dira, bizi izan dute elkartasun hori, eta ekarri die sekulako laguntza.

■ **Iheslarien artean izan ziren batzuk aipu eta sona handikoak: Txikia [Eustakio Mendizabal], [Juan Jose] Etxabe... Zuek, hangoak hona ekartzen eta hemengoak hara eramaten ibili zaretenok, ezagutu zenituzten.**

FILIFE: Hemen izan ditugu, lagundu ditugu, eskutik hartuta eraman ditugu bestalderat horiek. Garai hartan gazte-gazteak zirenak! Txomin-eta [Iturbe]. Gero, beren bidea egin dute. Baigorriin bizi izan dira, batzuk lanean, Denek-en. Denek kooperatiba gauza inportantea izan da borroka abiatzean, kontzientzia hartzean. Errefuxiatu batzuk ere sartu ziren han, lanean.

BETTI: Sortzaileen artean ere baziren.

FILIFE: Ez da erraten ahal kontzientzia politikoa hartzean elementu bat beste bat baino inportanteago izan dela. Ikastolak bezala. Sortu dira he-



mengo guraso batzuek nahi izan dutelako euskarazko eskola sortu beren haurrentzat. Lehenik, etxe batean hasi zen ikastola, Hegoaldetik jin zen iheslari batekin [Libe Goñi], eta ni berekin. Hastean, haurtzaindegia sortu genuen, eta lehen mailako ikastolak heldu ziren gero, eskolatzat deklaratuak. Ikastola mugimendua hedatu da hemengo gurasoekin, hemengo irakasleekin, hemengo laguntzaileekin. Herri Taldeek ez dute sortu hori, baina lagundu dute, indartu dute, parte hartuz eta parte harraraziz.

■ **Eta zer da laguna erortzen denean? 50 urte dira Txikia hil zutenetik. Ezagutu baitzenuten, eta lagundu baitzenuten.**

BETTI: Eta Txapela [Mikel Goikoe-txea], eta aintz!

FILIFE: Bistan da ezagun bat eraila delarik, horrek inarrostean gaitu. Eta hunkiak izaten garela, ez da dudarik.

BETTI: Biziki lagun onak izan ditut sarritan. Beste batzuk ez hain onak, baina batzuk biziki onak.



■ **Bego horretan, Bettik ez baitu harriak baino gehiago erranen... Kulturarekin bakarrik ez dago, erabaki eta neurri politikoak dira beharrezko, eta, zuek, aitak erranak erran, politika zikinera egin zenuten jauzi: Herri Taldeak, sostengua, borroka politikoa, borroka armatua eta Iparretarrak... "Euskal Herria ez da salgai", "Herriak bizi nahi du" ageri ziren tindaketetan.**

BETTI: Gauzak aldatu dira, ene ikuspegi soiletik. Tresna batzuk eraiki dira garai horretan, 80an-eta, tresna horiek azkartu dira, egitura batzuk eraiki dira, eta orain, iduri du gauza horiek normalak direla, aspaldikoak. Egun, jendeak sartzen dira egitura horietan lanpostu normal batean sartuko balira bezala, ez, hala ere, militante bezala. Lan bat normala irudi zaie. Beharbada, gauza batzuetan, onerako. Jendeek ikasi dute, espezializatu dira, profesionalago dira, baina ez dute duela zenbait urteko militantzia aitzinerat ematen.

“

"JENDEEK IKASI DUTE, ESPEZIALIZATU DIRA, PROFESIONALAGO DIRA, BAINA EZ DUTE DUELA ZENBAIT URTEKO MILITANTZIA AITZINERAT EMATEN"

BETTI BIDART

■ **Orain ez da militanterik?**

BETTI: Bai, bistan da badirela militantek orain ere, ainitz ematen dutenak, baina tresna horiek orain normal bilakatu dira. Eta, bestalde, kultur mailan-eta, lehenago herrietan eragin handia ukan duten gauzek, dantzek-eta, orain indar gutiago dute. Badira nik ez dakit zenbat dantza konpainia, ikaragarriko dantzariak dituzte, ikaragarriko sorkuntzak egiten dituzte, eta hori biziki ona da euskal kulturarendako.

Kantu mailan, rockari buruz joan da musika, gutiago kasu ematen da zer kantatzen den. Lehenago mezuak ziren entzuten, orain mezua ez dut ulertzen, baina, segur ere, tekniko-ki hobetu dira gauzak, lehen baino musikari hobek badira orain, lehen baino dantzari hobek. Gauza batzuk hobetu dira maila batean, baina garai hartako giroa ez da gaur egun. Ezin da gauza bera izan berrogei urteren buruan, baina...

JOJO: Mezuari buruz, duela berrogei eta berrogeita hamar urte kantatzen ziren gauza berak sentitzen dira gaur egun. Eta berriz entzuterakoan, oihartzun bera dute, eta, beharbada, sail batzuetan oihartzun handiago: etxebizitzaren inguruko problematikan, euskararenean... Duela berrogeita hamar urte oihartzun hasiak ginen, "Kasu...!" erraiten genuen. Gaur egun, nahiz eta ikusten den gauza batzuk hobetu diren -baina sekulako indarrak egin eta-, oihartzun gara ez dela deus irabazia betiko! Etsenpluko, joan

den urtean gertatu borroka bat, eta aurten errepikatu dena: baxoa euskaraz. Horrek frogatzen du ez dela deus irabazia. Urte batean lortuko da, baina ondoko urtean galtzen ahal da aitzineko urtean lortua, berehala! Hori guziaz biziraunarazi behar da, eta bada lan horretan ere.

■ **Zuk, Jojo, Irulegiko irratia sortzen lan egin duzu, besteak beste. Zer ondorio atera duzu horretatik?**

JOJO: Irulegiko irratia sortzea ezagutu baitut, eta beste batzue-na ere aski hurbiletik segitu baitut, erran nezake sortzea aski erraza dela. Bizirauteak badu bere balioa, eta galdegiten du bere indarra. Indar hori segitu behar da, eta pentsatzen dut militanteak izan behar direla horrelako egituretan sartzen direnak. Politikoki gauza batzuk lortu dira, baina funtsezko gauzak ez ditugu: segitzen dugu etxeak eta lurra galtzen, segitzen dugu gibelatzen...

Lortu dugu euskara mantentzea, baina bada fenomeno bat segitzen ari dena: proportzionalki euskaldunen kopurua Iparraldean ttipitzen ari da. Ikastolei esker eta mugimendu horri esker erreusitu dugu euskaldunen nombrea atxikiaraztea, baina populazioa handitzen ari da Iparraldean, eta, horrela, euskaldunok proportzionalki ttipitzen ari gara beti.

■ **Sortu dira egiturak, eraiki dira zenbait tresna, erran duzueenez... Zer diozu, Filipe?**

FILIFE: Ados naiz ene anaiek erran duten guziarekin. Sortu ditugun egitura horiek biziarazi egin behar dira, baina ene ustez hori ez da aski. Kulturatik abiatu-rik sartu ginen politikan, natural-ki, lotuak baitira biak, kultura eta politika. Gure borrokaren ardatzetarik bat zen turismoa salatzea. Beste politika bat behar genuen, eta ekonomiaren garapena behar



zela hemen sustatu defenditzen genuen. Borrokari esker ahalbidetu genuen garai hartan turismoari buruzko politika, zernahi gisa, ez geldiaraztea, baina, bederen, ahultzea eta gibelatzea, hein batean.

■ **Hein batean, ez guztiz.**

FILIFE: Hein batean, bakarrik. Baina, borrokari esker, proiektu batzuk, bederen, ezeztatuak izan ziren, eta sustatuak izan ziren, aldiz, beste gisako batzuk, herritarrek sortuak, bai laborantza munduan, bai kooperatibetan, bai ikastoletan. Hala ere, gaur egun Iparraldean euskara ari da galtzen, Jojok erran duen arrazoiengatik, zeren bada jende kolonizatze ikaragarri bat: urtean hiru-lau edo bost mila jende sartzen dira kanpotik Euskal Herrira, eta emeki-emeki euskaldunak gutiengoan izanen gara. Eta euskaldun guziak ez dira euskaraz ari, edo euskara ikasi duten guziak ez dira euskaraz ari. Baigorri berean ikusten dugu: belaunaldi berriak, non ez diren militanteak eta abertzaleak, ez dira euskaraz ari.



“BADA JENDE KOLONIZATZE IKARAGARRI BAT: URTEAN HIRU-LAU EDO BOST MILA JENDE SARTZEN DIRA KANPOTIK EUSKAL HERRIRA, ETA EMEKI-EMEKI EUSKALDUNAK GUTIENGOAN IZANEN GARA”

FILIFE BIDART

■ **Baigorri berean, erran nahi duzu?**

FILIFE: Baigorriko ibarrean, Ureperlerraino! Egoera hori da. Beharrik ikastolak badirela, eta horrek euskara bizirik atxikitzen du, eta euskal nortasuna biziarazten du ere, eta beharrik! Ikastolen inguruan bada, gaur egun ere, sekulako dinamika: guraso gazteak sartzen dira, parte hartzen dute, militante dira, hautu hori egin dute. Ez da ezkor izan behar denetan, ni aski baikor naiz, egoera txarra da arrunt, duela



“LORTU DUGU EUSKARA MANTENTZEA, BAINA BADA FENOMENO BAT SEGITZEN ARI DENA: PROPORZIONALKI EUSKALDUNEN KOPURUA IPARRALDEAN TTIPITZEN ARI DA”

JOJO BIDART

berrogei urte baino txarrago, gaur egun: euskara galtzen ari da... turismoa... garbiki erranen dut, borroka armatua geldituz gero, turismoa lehertu da, nolabait. Kar, kar, kar...

■ Kar, kar, kar... Borroka armatua gelditu, eta turismoa lehertu! (Irri, denak)

FILIFE: Turismokeria! Lehen egin nahi zuten guzia orain egiten dute. Sekulako proiektuak badira, baina turismoari lotuak dira denak. Kostaldea ikusi besterik ez dago. Itsasbazter hartan Parisetik heldu dira ehunka milaka jende, surfa egiterat... Euskal Herriaren irudia hori dute! Polita da, itsasoa da, mendia da...

■ Errobi taldeak Daniel Landarten hitzak musikatu zituen: “Itsasbazterra hartu dute / bai eta etxe zaharrak / artzain borda edo etxolak / arbasoek utzi lurrak. / Eta orai nahi daukute, / mendia ere ebatsi, / nola deabru beharko dugu / hemendik aitzina bizi?”

FILIFE: Garai hartako kantu guziak hartzen ahal dira –Errobirenak,

Guk-enak, Etxamendi eta Larralderenak...-, hartzen ahal dira garai hartako agiriak, eta gaur egun ikusten duzu egoera, eta egoera bera da, baina arrunt gaizkiago, zeren eta orain etxebizitzaren espekulazioa biziki gora joan da, alokairuak ere biziki gora, eta gazteek zailtasunak dituzte –eta hemen Baigorri berean ere–, bizitokiak atzemateko. Etxebizitzaren arazoa aise lehen baino txarrago da. Euskararen egoera, ikastolei esker iraunarazi da, hizkuntzaren egoera atxikitzen da oraino, baina hori baino gehiago egin beharko da nahi bada euskara biziarazi hemen. Euskara galtzen ari da, hala ere. Ghetto batean hesen gaituzte, eta laster erreserba batzuetan ezarriko gaituzte, AEBetako indioekin egin bezala. Berdin.

■ Itsasbazterrean turismokeria nagusitu baita, zertan da ekonomia garapena barnealde honetan? Laborantza zen hemen guziz gehiena, ez hain aspaldi.

BETTI: Laborariak badira oraino hemen, baina ohartzen gara zer heldu den. Duela hogeita hamabost urte Baigorri baziren 125 etxalde. Gaur egun badira 75, eta etxaldeetan laborari direnak, berriz, 55 urtetik goiti da erdia, eta segidarik gabe gehienak. Etxalde bat husten delarik, auzoen artean partekatzen dira lurrak. Ez da laborari berririk biziki. Bada mugimendu bat, batzuk entseetzen dira, eta herriko etxean berean bada lan bat horretaz eginga, egoeraren aztertze eta joateko laborariei buruz, ia ados diren kanpoko norbait beren etxaldean sartzeko, baina hori zinez zaila da hemen, zeren eta gure kulturari nahiago dugu etxea hutsik, kanpoko norbait gure etxean ikusi baino.

JOJO: Funtsezko lan bat bada eginga, eta segitzen da egiten. Baigorri egiten ari den lana, egiten ari da orokorki Iparraldean. Eta lan horren guziaren ondorioz da labo-

rantzari lotua den ekonomia egonkortu, politika argi bat ukanez beti, eta pentsatuz zer egin laborari hain ttipiekin, zeren laborariak ttipiak baitira Iparraldean, Frantziari konparatuz, bederen. Hemen ELB laborarien sindikatuaren bitartez jakin izan da lekuko laborarien beharrak kontuan hartzen... Tendentzia hori hor da, etxalde galtzea-eta, baina ikusirik laborantza arloan Nafarroan edo Erkidego Autonomoan gertatu dena, hemen salbatuak izan dira muebleak, erraiteko moduan, baina sekulako lanari esker, eta ez da guti.

BETTI: Barnealdean, edo hemen, Nafarroa Beherean, laborantza da ekonomia handiena, eta ikusten dugu zeri buruz ari den. Gaineratekoan, da turismoa!

FILIFE: Turismoa sartua da denetan, eragina badu denetan!

BETTI: Kanpotik heldu jendea ari da beti etxeak erosten hemen, eta aintz *gite* ere ireki dituzte, landetxeak eta holako.

■ Jokok adierazi duen itomena, duela 40 urtekoa, ez da arindu, beraz?

FILIFE: Edo handiago da gaur egun. Itoak gara gero eta gehiago. Hala ere, nahiago dut baikor gelditu, ez sobera ezkor. Badut esperantza. Duela hogeita hamar edo berrogei urte, egoerak gure baitan kontzientzia hartze bat piztu zuen. Pentsatzen dut oraingo egoera hau ezin gehiago jasanik –eta egoera hau ez da hobetuz joanen, zinez arazo larriak izanen direla uste dut–, gazteak egun batez altxatuko direla, kontzientzia hartuko dutela, eta atzemanen dituztela bizi ahal izateko tresnak. Eta, zinez, atzeman beharko dituzte euskaldun bezala bizi nahi badute, eta beregain. Beharko dute eskuak zikindu horiek ere, guk zikindu ditugun bezala... Ez dakit guk batere zikindu ditugun baina! Kar, kar, kar...



JEAN BATISTE BIDART, AITA

“Jende gehienak euskararen alde dira. Zenbaitzuri egia erran, ez zaie iruditzen euskara beharrezkoa denik. Nik, ene partetik erraiten dut euskara gure arbasoek utzi ondasun bat dela eta, hura behar dela begiratu. Badira anitzek horrela ikusten dutena. Gero, hainbertze kanpotar bada sartzen denik, eta haiekin jendea nahastekatzen da, eta euskara geroz gutiago aditzen da haien artean. Bertzalde, nola telebista ere beti haurrendako gauza errazagoa den piztea, eta hura beti erdaraz ari baita, hortako, euskara zenbait aldiz, zenbait lekutan, bakantzen ari ote den, naski”.

ARGIA, 1991ko urtarrilaren 27a, Mikel Asurmendik elkarrizketa Jean Batiste Bidarti



FILIPE BIDART

“Euskal nortasuna beti zaindua izan da etxean, baina ez diskurtso politikoen bidez, naturalki. Beti azpimarratu zaigu harro behar genuela gure nortasunaz, euskaldun izateaz, jendetasunez eta zintotasunez ez genuela burua apaltzerik kanpotarren aitzinean, frantsesez aritzeak ez zituela gu baino hobeak egiten. Lema hori ez zen etxekoa bakarrik, herrian eta eskola irakasle zenbaiten ahotan maiz entzuten genuen. Arrunt giro euskaldunekoa zen Baigorri, baina kanpotarrak jiten hastearekin bat ohartu ziren batzuk euskal nortasunari buruzko arriskuez. Berantago, Baigorritik jalgirik, Uztaritzeko seminarioan harrapatu ninduen 1968ko mugimenduak. 15 urteko mukizua nintzen, baina hor hasi ginen biltzarrak, planteak eta manifestazioak egiten. Baionara joan ginen manifestatzera. Hori izan zen ene lehen manifestazioa. Apezentzat hori sekulako afruntua izaki, denak kanporatu gintuzten, baina iraultza egina zen. Espirituetan, jarreretan, dena aldatu zen, “aski da, guk ere badugu zerbaitek errateko” aldarrikatatu zuen jendeak. Espiritu aldaketa horrek izigarriko eragina izan du nigan eta militante bilakatuko zen Iparraldeko bigarren abertzale belaunaldian”.

ARGIA, 2014ko irailaren 28a, Sustrai Colinak elkarrizketa Filipe Bidarti



BETTI BIDART

Zurgin izana da lanean, aitaren bideari segituz, iaz erretretan sartu zen arte. Hala ere, kontent da, hogeiren bat lagunek lantokiari segida eman baitiote Baigorri ibarrean.

Bestalde, izan da musikari eta dantzari ere. Txistua jotzen hasi zen haur garaian, eta gaita jotzen ari zen, berriz, 17 urtetan. Tartean, diren eta ez diren dantzari taldeetan ibili zen, eta Uztaritzeko taldekoak gaita ikertzen hasteak abiarazi zuen Betti Bidart ere gaita ikasten, Jabier eta Fernando Lakuntza anaiak bitarte.

Nafarroaren Egunaren sortzaileetarik da, kultura astea egin zuten Baigorri, eta astearen barne, egun hura antolatzea pentsatu zuten, nafartarren arteko harremanak sendotzeko, mugaren gainetik. Musika eta dantzaren bidez loturak zituzten Tafallako gazteekin, eta, bestalde, Baigorriko gaiteroek Iruñeko gaiteroekin ikasi zuten musika jotzen. Eta lehen Nafarroaren Egun hartan Baigorriko etxeetako leihoak aski hertsia, gazteez aparte uzkur jendea. Aurreiritzien gainetik, ordea, Egunak aurrera egin du. Betti Bidart da lekuko.



JOJO BIDART

“...duela kasik 40 urte, barnealdea jendez husten ari zen. Ez gara oraino atera, baina herrian bizitzeko nahikaria duen jendeak bere esku hartu ditu tresnak: CLPB gasna kooperatiba, Kintoa zerrikia, sormarkak... Ekonomia eta gizarte gaietan badira esperantza ematen duten elementuak. Hizkuntzari dagokionez, ikastolei esker izan da dinamika bat euskararen berreskuratzean. Galtzeak segitzen badu ere, bada berrabiatze bat gazteetan. Duela 40 urte abiatu dinamikak bere fruituak ekarri ditu: hiltze prozesu batetik atera gara. Baina bada egiteko, dudarik gabe! Azkenik, politikoki eskakizunak oraingoak baino urrunago abian baziren ere, gauzak eraiki dira: Elkargoa. Segida behar du. Jende anitzek pentsatzen du ea zer proiektu behar den Iparraldearentzat; ikuspegi hori, lehen, abertzaleena zen bakarrik”.

ARGIA, 2002ko iraila

■ **Belaunaldi bakoitzak bere iraultza egin ohi du. Gazteak jinen direla baduzu esperantza, sortuko dituztela beren tresnak... Esperantza duzu hori ikusiko duzula?**

FILIFE: Ez, ene adinean! Kar, kar... Baina lekuko naiz, laborariek sekulako lana egiten dute. Tokiko ekoizpen garbien laguntzeko, eta hemengo ekoizpenak saltzeko, adibidez, sortu dituzte sare bereziak, eta horrek badu sekulako dinamika eta indarra. Horri esker bizi dira laborari ainitz, ez laguntzei esker, baizik eta beren ekoizpenak saltzetik. Hor sekulako lana egingo izan da, eta segitzen dute horretan.

BETTI: Urteetan egin izan da lan ikaragarri bat. Dantza mailan, has-teko, Arrolarekin hasi eta Nafarroa Beherea osoan –Beñat Galtxetabururi esker-eta–, dantza jauziak hedatu dira, eta beti segitu dute. Kantuak, berriz, gehien kantatzen den alderdia hemen da, Baigorri eta Banka inguruan. Hemen kantatzen da, jendea atxikia da oraino kantuari. Gaualdia egin genuen Basaizearen Bixentainea gelan duela urtea, eta hura zen gazte zuzenaren betea. Gau guziaz kantuz ari izan ziren, denak harrituak utzi gintuzten. Badakite kantuan, eta atxikiak dira. Gazte haiek Guk-en kantuak eman zituzten, edo kantu zaharrak... Bada oraino zerbait! Gu borrokatu ginen “folklorismo” baten kontra. Folklorea zen turistendako egin behar zen gauza bat, baina gero aldatu zen ikusmolde hori, dantzak hartu du egiazko lekua kulturaren toberen bidez-eta. Horrekin batera, bada dantza eskolak, badira dantzari ttipiak, batzuk Barkoxekoak, besteak Atharratzekoak... biziki gauza politak egiten dituzte.

Bestalde, fenomeno berri bat ari da gertatzen hemen: ihauteri garai horretan zazpi-zortzi herritan libertimenduak egiten dituzte. Libertimenduak dira herriko gorabeherak aipatzen den antzerkia. Ez dira to-

berak, baina antzezten dute urte batean herrian gertatzen direnak, eta dantzariak parte hartzen dute, serio, eta hor parte hartzen dutenek nahi dituzte zinez gauzak ontsa egin. Aurten loriatu gara libertimenduak Baigorri ikusirik, eta Donibane Garazin, eta Amikuzen, Lekornen, Biddarrain... Bada mugimendua horren inguruan, eta herri bakoitzak nahi du marka utzi. Hori zinez baikorra da.

■ **“Apezak azken hitza bere” da errana, eta hari buruz goaz. Zuk, Jojo, Irulegiko Irratian egin duzu biziaren zati inportante bat, eta ARGIAren Irrati saria ere jaso zenuen 2007an, Ipar Euskal Herriko komunikatzaile erreferente izateagatik. 2022an, berriz, Merezimenduzko saria jaso zuten Gure Irratiak, Irulegik eta Xiberoko Botzak...**

JOJO: Bai. Eginak izan diren urratsak oroitaraztean, inportantea da Euskal Irratien sortzea eta irautea. Iparraldean komunikabideen arloan egiten den lana baitezpadakoa da. Euskal Irratiak abiatu dira Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin, herrietarik abiatu ere, Herri Taldeak bezala. Mugimendu hori biziki inportantea izan da. 40 urteren buruan oraino irauten du mugimendu hark egin lanak. Badira sekulako parioak geroari begira, zeren eta komunikabide mundu hori eraldatzen ari da ikaragarri. Gaur egun ez da Parisetik heldu telebista bat bakarrik, baditugu 27 kate, bederen! Bai, bada Euskal Telebista, bada Kanaldude ere, eta baitezpadakoa da horiek eskuetan atxikitzea, laguntzea eta segitzea, zeren eta, bestenaz, itoak gara, eta komunikabideetan itoak izateak ainitz erran nahi du. Komunikatzeko tresna horiek ez baditugu atxikitzen, desagertuko gara.

FILIFE: Herri guzien zoria da hori, bizitzeko behar da borrokatu. Borrokatzen den herri bat, biziko da. Ez bada borrokatzen, akabo, itoko

“

“HERRI GUZIEN ZORIA DA HORI, BIZITZeko BEHAR DA BORROKATU. BORROKATZEN DEN HERRI BAT, BIZIKO DA”

FILIFE BIDART

da. Erran dugu tresnak sortu direla, egiturak eraiki direla ere, baina arriskua da gero dena estatuaren gain uztea. Ez baita aski eraikitzea, irauarazi behar da eta herritarren esku atxiki. Herri Taldeak sortu diren bezala egin behar dira gauzak, herrietarik eta herritarrek antolatuturik, tresnak haiek sorturik eta asmatuturik, egiturak haiek garaturik eta sostengaturik. Euskal Irratiak sortu diren bezala, ikastolak sortu diren gisa, herrika, gurasoekin, herritarrekin taldea muntatuz eta “Goazen aitzina!” erranik. Horrela hedatu da mugimendua, eta hori da aterabidea, lekuan lekuko eta oinarritik abiatu-rik lan egitea.

BETTI: Horrela ari izan gara gu. Saltsa guzietako eltzeak izan gara, eta izan gara dantzan, musikan, kantuz eta, gero, politikan. Saltsa guzietan ibili gara...

FILIFE: Eta entseatzeko gara egin izan dugunak ukan dezan oihartzun eta iraupen. Geroak erranen du, baina egingo izan da, ez da betiko egingo, behar da segi!

Merezi du borrokatzea...

FILIFE: Ez da merezi kontua, beharrezkoa da.

JOJO: Beharrezkoa da, eta ondorioak baditu. ●

ARGIA

BABESTEKO 11 ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA n jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako

